

Irailak 9

ARANTZAZUKO ANDRE MARIA

Gorazarreak (Bitoriano Gandiaga, Frantziskotar Gorazarreak liburutik hartuak)

I

1.-ANDRE MARI, ZURE ELORRIA ETA

erakarri duzun jendea dakusat

zure inguruan.

Zure agerpenak guztizko eragin

handia izan du lurralde honetako

jende saiatuan.

2.-Aro berri baten atari izan zinen,

euriz, bakez blaituz alor eta bihotz

luzaz lehortuak:

ondasun lurreko ta espirituko

eurrez bedeinkatu zenituen bazter

gerrak zigortuak.

3.-Berpizkundez piztu zenuen herria

eta adorez zion heldu askotariko

bizimoduari.

Jakintzaren eta santutasun bideez

goi-mailetaraino iritsi zen gero

herritar ugari.

4.-Elorriko Ama eta Andre Maria,

bakea dezagun eta onaldia

egun ere egizu.

Mendeetako zure mila mesedeak

gogoan dituen gure esker-kantu hau

atsegin bekizu.

II

1.-ANDRE MARÍA ZERUETAKO

Erregin gozo gorena,

zeu zara gure begi-bihotzen

poza eta mirespena.

Berpiztuaren aintza bizian

gorputz-arima zaudena,

zein zaren gure bideko argi,

zein zaren itxaropena!

2.-Andre María zeruetako

Erregin gozo gorena,  
Berpiztuaren aintza bizian  
gorputz-arima zaudena,  
zein zaren itxaropena!

3.-Beti zauzkagu gugandik hurbil  
deitzen zaitugun denetan,  
baina, nolabait, hurbilagoan  
zeure santutegietan.

Gaur Arantzazun gauzkazu zeure  
irudiaren oinetan;  
zeurekin egin nahi dugu murgil  
Berpiztuaren pozetan.

4.-Beti zauzkagu gugandik hurbil  
deitzen zaitugun denetan.  
gaur Arantzazun gauzkazu zeure  
irudiaren oinetan,  
Berpiztuaren pozetan.

5.-Gure Ama ta Zaindari zara,  
zeuk duzu gure ardura;  
iguzu bizi gaitezen jator,  
zeu bizi zinen modura.  
Gure fedean beude argia,  
alaitasuna, lilura,  
sendo ta bizkor gara dezagun  
Berri Onaren kultura.

6.-Gure Ama ta Zaindari zara,  
zeuk duzu gure ardura:  
gure fedean beude argia,  
alaitasuna, lilura,  
Berri Onaren kultura.

### III

*Doinua*: FGD (Frantzistar Gorazarreen Doinuak). 20

1.-ANDRE MARI ELORRIKO,  
zaude gaur ere gurekin,  
gerran eta eskasian  
bizi baikara erremin;  
bakea eta ogia  
ditzagula elkarrekin.

2.-Hain itxi *ta* itsu baikaude,  
lagun iguzu zabaltzen

bihotzak eta begiak,  
gure arteko borroken  
istilubide nahasiak  
ea ditugun konpontzen.

3.-Badakigu gorreriak  
zein joak aurkitzen garen.  
lukurreriak zein joak,  
zein zatikatuak gauden;  
iguzu elkar-laguntzan  
azkarragotu gaitezen.

4.-Elizari hats berria,  
herriari pizkundera,  
zure agerpenak onez  
jantzi zigun lurraldea,  
dena zenigun ekarri:  
ura, bakea, fedea.

5.-Aldaketen garaiotan  
gaurkotzen dezagun asma,  
argi ta indar gaitzazu,  
bizi berriaren Ama,  
onik goza ahal dezagun  
berrikundearen xarma.

6.-Garai bakoitzak arazo  
bere-bereak baititu,  
egungoak nahi ditugu  
konpondu ta egokitu.  
Iguzu gizatasunez  
elkar dezagun aditu.

7.-Aintza ongiaren eta  
bakearen Jainkoari,  
on guztien buruari;  
aintza Hirutasun Santu,  
bizitzaren sustapen ta  
pozaren argi goiari. *Amen.*